Bidaiari-garraioaren sektorearen kalitate eta lehiakortasunari dagokionean ere hainbat lan egin dugu: lanbidea uzteko eta elkartegintza sustatzeko laguntza-programak, sektorea modernizatu eta teknologia berriak ezartzekoak (GPS, segurtasun-elementuak,…) eta kalitate eta ingurumenerako sistemak ezartzekoak.

Bidaiariak automobiletan (taxietaN9 garraiatzeko zerbitzu publikoaren arloan ibilgailuen lokalizaziorako eta kontrolerako sistemak jartzea bultzatu dugu eta ibilgailuek energia berriztagarriak erabil ditzaten birmoldatzeko laguntzak ematen hasi gara..

Euskal Autonomia Erkidegoan hiri-hausturako guneetan igogailuak edo antzeko sistemak jartzeko laguntzak bideratu dira, eta baita bizikleta-bideak eraikitzeko laguntzak ere, garraiobide iraunkorragoak eta intermodalitatea sustatzeko asmoz.

Era berean, garraiorako sistema adimenduak sustatzen lan egin dugu, ERTICO europar sozietatean parte hartuz; kable bidezko garraioa egokitzeko bultzada bikaina eman da Arangoitiko igogailuaren instalazioak modernizatu eta hobetzeko hitzarmenean jasotako jarduketen bidez eta Begoña eta Solokoetxeko igogailuen egituraren egoera ere aztertuta). Azkenik, garraio publikoaren erabilera bultzatu da, hainbat ekimenen bidez: "autorik gabeko eguna" eta "Mugikortasunari buruzko hiritarren topaketa".

***2.)***

*Con respecto a la mejora de la calidad y competitividad en el sector del transporte de viajeros se han desarrollado programas de apoyo al abandono de la actividad, fomento del asociacionismo, modernización e implantación de nuevas tecnologías (GPS, elementos de seguridad,…) y apoyos a la implantación de sistemas de calidad y medioambiente.*

*En el sector del transporte público de viajeros en automóviles de turismo (taxi) se ha fomentado la implantación de sistemas de localización y control y se han iniciado los apoyos a la conversión de vehículos para uso de energías alternativas.*

*Se han tramitado las ayudas para la instalación de ascensores o similares en zonas de fractura urbana en municipios de la CAPV y ayudas para la construcción de carriles bici en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el objeto de fomentar el uso de los modos de transporte más sostenibles y la intermodalidad.*

*Asimismo, se ha trabajado en el fomento de Sistemas Inteligentes de Transportes, mediante la participación en la sociedad europea ERTICO; se ha promocionado la adecuación del transporte por cable (impulsando las actuaciones previstas en el convenio para modernización y mejora de las instalaciones del ascensor de Arangoiti y analizado la situación estructural de los ascensores de Begoña y Solokoetxe. Finalmente se ha potenciado la utilización del transporte público poniendo en marcha iniciativas como el "Día sin mi coche" y el "Encuentro ciudadano con la movilidad".*

**3.)**

Garraioaren plangintza eta garapenari dagokionean, Garraio Iraunkorraren Gidaplanari eta ekintza tenporalizatuen planari jarraikiz, abiarazitako zenbait ekintzekin jarraitu dugu eta berriak ere jarri ditugu martxan.

Euskadiko Garraioaren eta Logistikaren Sare Intermodalaren Lurraldearen Arloko Plana garatzen ere lan handia egin da, eta dagoeneko prestatuta daude ingurumenaren gaineko eraginaren azterlana egin ahal izateko pleguak, lana esleituta eta eginda dago, Ingurumen eta Lurraldearen Antolamendu Sailak ingurumenaren gaineko eraginaren aldeko txostena jasotzeko prest.

Euskadiko Garraio Agintaritzak ohiko lanarekin jarraitu du; guztira bi osoko bilera egin zituen, bata uztailaren 9an eta bestea abenduaren 19an; bilera horietan atal, ponentziek eta lan-taldeek egindako lanaren berri eman zen; azpimarratu beharrekoa da zenbait atal eta ponentziatan irizpideak koordinatu eta bateratzeko egindako lana.

Salgaien Garraioaren Atalean eta Bidaiarien Garraioarenean trenbide-operadoreak sartu dira, intermodalitatea lantzeko, eta azpimarratu beharra dago Bidaiarien Garraioaren Atalean egindako lana, familia ugarientzako tarifa bereziak prestatzen eta Euskadiko garraio-txartel eta tituluen interoperabilitateari buruzko

***3.)***

*En cuanto a la planificación y desarrollo del transporte, respecto al Plan Director del Transporte Sostenible, atendiendo al Plan calendarizado elaborado, se han iniciado o continuado las acciones previstas en el mismo.*

*También se ha llevado a cabo una importante labor en el desarrollo del Plan Territorial Sectorial de la Red Intermodal y Logística del Transporte de Euskadi habiéndose preparado los pliegos para el correspondiente estudio de impacto ambiental del mismo, así como la adjudicación del trabajo y su realización, todo ello de cara a la obtención del informe de evaluación de impacto ambiental por parte del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.*

*La Autoridad del Transporte de Euskadi (ATE) ha continuado con su actividad ordinaria, habiéndose celebrado 2 plenos, el 9 de julio y el 19 de diciembre, en los cuales se han expuesto los trabajos realizados por las secciones, ponencias y grupos de trabajo entre los cuales cabe destacar la importante labor realizada en cuanto a la coordinación y unificación de criterios en algunas de las secciones o ponencias.*

*En la Sección de Transporte de Mercancías y en la de Transportes de Viajeros se han incorporado los operadores ferroviarios, para trabajar en la intermodalidad, destacándose el trabajo realizado por esta última Sección, en relación a las tarifas especiales para las familias numerosas, y la preparación previa del estudio de*

azterlana prestatzen; azterlana egiteko kontratua, 2009ko urtarrilean esleituko da eta horrek asko erraztuko du hiru lurraldeetarako txartel bakar bat lortzeko lana.

*interoperabilidad de tarjetas y títulos de transporte en Euskadi que se adjudicará en enero de 2009, y que facilitará el objetivo de contar con un billete único para los tres territorios.*

Beste ataletan berriz, Goi Ikuskaritzaren Atalean esaterako, hiru lurraldeetarako ikuskapen-guneak non jarri erabaki da, Estatu eta Autonomia mailako trafiko, garraio eta enparauen ikuskapeneko kanpainen koordinazioa ere aztertu da, eta ikuskatzaileen lana errazteko hobekuntza teknikoak proposatu dira.Araudiaren Atalean puntualki eskatutako gai zehatzei buruzko txostenak egin dira.Gainera, azpimarratu beharra dago EAEko salgaien ikuskapen-guneei buruz egindako azterlana eta estazioetarako ereduzko proiektua ere prestatu dela.

*En el resto de secciones, en cuanto a la de Alta Inspección, se han acordado puntos de inspección para los tres territorios, se ha tratado sobre la coordinación de las campañas de inspección autonómicas y estatales de tráfico, transportes, etc. y se han propuesto mejoras técnicas para facilitar la labor inspectora. En la Sección de Normativa se han realizado informes sobre asuntos solicitados puntualmente. Además, cabe destacar el estudio desarrollado sobre Puntos de inspección de mercancías en la C.A.P.V. y redacción del proyecto tipo de las estaciones.*

Ponentziei dagokienean, informazioari buruzko plataformaren gaineko ponentzia azpimarratu beharko genuke: tresna hobetzen lan egin da, bai eta linea, ordutegi eta antzekoei buruzko informazioa sartzen, eta erakundeekin elkarlanean jardun da datu horiek eguneratuta izateko.2009 urtearen hasieran 8 informazio-gune jartzeko asmoa dago, eta ikusiko da zer moduzko emaitza ematen duten.

*En cuanto a las ponencias, cabe destacar que la Ponencia Plataforma de Información ha trabajado en la mejora de la herramienta y la introducción de datos sobre líneas, horarios, etc. y la colaboración de las instituciones para la actualización de estos. A principios de 2009 está prevista la instalación de 8 puntos de información que servirán de test para comprobar su rendimiento.*

Gainontzeko ponentzietan emaitzak 2009an ikusiko dira, Garraioak Iraunkortasunari egiten dion Ekarpenaren Ebaluazioari buruzko Ponentzian, lantaldeak metodologia-gida egiteko kontratua esleitua duen enpresarekin batera lan egingo baitu, eta aurten bukatzeko asmoa dute; eta Gazteria eta Garraioak Ponentziak eta Kanpoko Kostuen Barneratzeari buruzko Ponentziak 2008an egindako bileretan prestatutako ondorioen gaineko txostenak landuko dituzte.

*En el resto de ponencias se verán los resultados durante 2009, ya que en la de Evaluación de la Aportación a la sostenibilidad del transporte, el grupo de trabajo colaborará con la empresa adjudicadora para la realización de la Guía Metodológica, que estará finalizada ese año; y las ponencias de Juventud y Transportes e Internalización de Costes Externos, trabajarán sobre los informes de conclusiones elaborados durante las reuniones realizadas al efecto a lo largo de 2008.*

Euskadiko Garraio Agintaritzaren egitekoetako bat txostenak egitea da, eta egiteko horren barruan 2008an honakoak egin ditu:

*En base a la función de emisión de informes por parte de la ATE, durante 2008 se han emitido los siguientes informes:*

A-3713 eta A-3717 lineetako trafikoak banandu eta ondoren Arabako Foru Aldundiari transferitzeko Autobuses La Union SA-k, A-3700 (Bilbao-Vitoria/Gasteiz eta adarrak) emakida bateratuaren titularrak egindako eskariri buruzkoa.

*- Segregación de tráficos de las líneas A-3713 y A-3717 y posterior transferencia a la Diputación Foral de Álava, realizada por el titular de la concesión unificada A-3700 de Autobuses La Unión S.A. , solicitada por la Diputación Foral de Bizkaia.*

Ezkerraldea eta EHU artean eta Uribe Kostarako bidaiarien erabilpen bereziko garraio-zerbitzu erregular iraunkorrak jartzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren aurreproiektuari buruzkoa.

*- Anteproyecto para el establecimiento de servicios regulares permanentes de uso general de transporte regular de viajeros entre la Margen Izquierda y la UPV/EHU y para la comarca de Uribe Kosta, solicitada por la Diputación Foral de Bizkaia.*

Euskadiko Garraioaren Sare Intermodal eta Logistikoaren Lurraldearen Arloko Planaren gainekoa.

*- Plan Territorial Sectorial de la Red Intermodal y Logística del Transporte de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

Euskadiko Garraioaren Behatokiak, berriz, bere egitekoen barruan, webgunea osatu du, Garraioaren Panoramikari buruzko txosten exekutiboa prestatu eta prospekzio-azterlanak burutu ditu (errepideko bidaiarien garraiorako kostuen simulatzailea). Bidaiarien garraioari buruzko estrategiaren gaineko eta horiei buruzko jarduketetarako giltzarrien gaineko hausnarketa amaitu da, eta aireportu-sistemari buruzko eredua analizatzeko azterlana eta EAEko aireportuak kudeatzeko plana ere egin da.

*Por su parte, el Observatorio del Transporte de Euskadi (OTEUS) ha desarrollado su programación con, la página Web, el informe ejecutivo de la Panorámica del Transporte y la elaboración de estudios prospectivos (simulador de costes del transporte de viajeros por carretera. Se ha finalizado el estudio de reflexión estratégica del transporte de viajeros y sus claves de actuación, y el estudio del análisis del modelo del sistema aeroportuario y el plan de gestión de los aeropuertos de la CAPV.*

Plangintzari dagokionean, hainbat ekimen garatzen jarraitu dugu; besteak beste, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluazioaren amaitu ondoren Euskadiko Garraioaren eta Logistikaren Sare Intermodalaren Lurraldearen Arloko Planaren inguruko izapideekin jarraitu

*En cuanto a la planificación se ha continuado con el desarrollo de diversas iniciativas tales como la tramitación del Plan Territorial Sectorial de la Red Intermodal y Logística del Transporte de Euskadi, como herramienta fundamental para el sector, habiéndose realizado la*

dugu , sektorerako funtsezko tresna baita.

Euskal aireportuak sustatzen lan egin dugu, Bilboko, Gasteizko eta Donostiako aireportuei lagunduz, horiek kudeatzen dituzten sozietateen bidez.

**4.)**

Preskuntza sustatu eta bultzatzeari dagokionean, Logistikako Euskal Institutuari laguntza ematen jarraitu dugu, institutu hori garraio sektoreko prestakuntza eta profesionalizaziorako funtsezko tresna baita, eta horretaz aparte, unibertsitateko graduatuentzako 6 beka eman dira; hona hemen horien xehetasunak:

TB-1 beka: Euskadiko Garraio Agintaritza.

TB-2 beka: Euskadiko Garraio Behatokia.

TB-3 beka: Euskadiko garraio sektoreko logistikaren garapena eta ikerketa.

TB-4 beka: Salgai garraioaren segurtasuna eta eragingarritasunaren hobekuntza.

TB-5 beka: Garraio Iraunkorraren Gidaplaneko adierazleak eguneratu, garatu eta haien jarraipena egitea.

TB-6 beka: Garraioan komodalitate iraunkorra ezarri eta sustatzea.

Urtean zehar garraioaren arloko hainbat jardunaldi tekniko, solasaldi eta hitzaldi antolatu ditugu, batez ere gai hauen inguruan: Salgai arriskutsuen garraioaren behatokia, garraio-kontratua, araugintzaren arloko berrikuntzak, mugikortasuna eta itsas autobideak.

Azkenik, segurtasun-ikuskatzaile izateko azterketetarako bi deialdi egin ditugu, (bai agiria lehenengo aldiz lortzeko, bai berritzeko) eta garraiolarien lanbide-gaitasuna egiaztatzeko deialdi bat egin dugu; eskabideak izapidetu eta tituluak eman ditugu.

**5.)**

Euskadiko garraio publikoaren antolamenduari dagokionean, trenbide-sektorearen eta kable bidezko garraioaren legearen lehenengo zirriborroetan hainbat aldaketa egin dira; eta heliportuei buruzko araudiaren gainean prestatutako zirriborroa aztertu dugu.

Azkenik, hainbat agindu onartu ditugu:

a) <u>EAEko garraio sektorea laguntzeko programa:</u>

- Lanbidea uzteko – 2008ko ekainaren 4ko Agindua.
- Enpresa-kontzentraziorako – 2008ko ekainaren 4ko Agindua.
- Elkartegintza bultzatzeko – 2008ko uztailaren 9ko Agindua.
- Teknologia berriak jartzeko - 2008ko uztailaren 9ko Agindua.

*evaluación conjunta del impacto ambiental del mismo.*

*Se han promocionado los aeropuertos vascos, con apoyos a los aeropuertos de Bilbao, Vitoria-Gasteiz y al aeropuerto de Hondarribia, apoyando a sus respectivas sociedades gestoras.*

***4.)***

*En cuanto a la promoción y potenciación de la Formación, se ha continuado apoyando al Instituto Vasco de Logística, instrumento clave para la formación y profesionalización del sector del transporte, además de haber otorgado 6 becas de formación de graduados universitarios, que se indican a continuación.*

- *BECA TB-1: Autoridad del Transporte de Euskadi.*
- *BECA TB-2: Observatorio del Transporte de Euskadi-Oteus.*
- *BECA TB-3: Desarrollo e investigación de la logística en el sector del transporte de Euskadi.*
- *BECA TB-4: Seguridad y mejora de la eficiencia del transporte de mercancías.*
- *BECA TB-5: Actualización, desarrollo y seguimiento de los indicadores del plan director de transporte sostenible.*
- *BECA TB-6: Implantación y fomento de la comodalidad sostenible en el transporte.*

*También se han organizado varias jornadas técnicas, charlas y conferencias en materia de transporte, centrándonos en las siguientes temáticas: Observatorio de transporte de mercancías peligrosas, jornadas técnicas del transporte sobre el contrato de transporte, nuevas actuaciones normativas, movilidad y jornadas sobre autopistas del mar.*

*Finalmente se han realizado dos convocatorias de las pruebas de Consejero de Seguridad, tanto para la obtención del título como para su renovación, y una para la obtención del título de Capacitación profesional de transportista, tramitándose las solicitudes y entregas de títulos.*

***5.)***

*En relación a la ordenación del transporte público de Euskadi se han realizado modificaciones a la redacción de los borradores de los anteproyectos de la Ley del sector ferroviario y la Ley del transporte por cable; asimismo se ha analizado el trabajo realizado en la elaboración de un borrador sobre normativa de Helipuertos.*

*Finalmente se han dictado una serie de órdenes en las siguientes materias:*

*a) <u>Programa de apoyo al sector del transporte de la C.A.P.V.</u>*

- *Fomento del abandono de actividad- Orden de 4 de junio de 2008.*
- *Concentración de empresas - Orden de 4 de junio de 2008.*
- *Fomento del asociacionismo - Orden de 9 de julio de 2008.*
- *Implantación de nuevas tecnologías - Orden de 9 de julio de 2008.*

- Kalitate eta ingurumenerako sistemak jartzeko - 2008ko uztailaren 9ko Agindua.

- Lokalizaziorako eta kontrolerako elementuakjartzeko (taxietan) – 2008ko uztailaren 9ko Agindua.

- Automobilak energia alternatiboekin ibil daitezen eraldatzeko (taxietan) - 2008ko uztailaren 9ko Agindua.

- Igogailu eta antzekoak jartzeko – 2008ko uztailaren 29ko Agindua.

- Bizikleta-bideak eraikitzeko – 2008ko uztailaren 29ko Agindua.

- Salgaien garraio konbinatua sustatzeko – 2008ko irailaren 30eko Agindua.

b) Garraio publikoko tarifen gaineko 2008ko aginduak:

- Bidaiarien herri barruko eta herriz kanpoko garraio publikoaren tarifak, erregular erabilpen orokorrekoena (2008ko otsailaren 28ko Agindua) eta erregular erabilpen berezikoena eta eskatu ahalakoena (2008ko otsailaren 4ko Agindua).

- Euskal Autonomia Erkidegoaren mende dauden zerbitzu publiko erregular erabilera orokorrekoetan indarrean dauden tarifen berrikusketak (2008ko uztailaren 22ko Agindua).

- Automobiletan egiten den bidaiarien herriz kanpoko garraio publikoaren tarifak 2008ko abenduaren 16ko Agindua.

- Automobiletan egiten den bidaiarien herriz kanpoko garraio publikoaren tarifak (2008ko uztailaren 9ko Agindua).

- Kable bidezko garraioaren tarifak (2008ko otsailaren 8ko Aginduak, Solokoetxe eta Begoñako igogailuetarako, 2008ko urtarrilaren 15eko Agindua Salverako eta 2008ko abenduaren 18ko Agindua Arangoitiko igogailuetarako).

**6.)**

Atlantiko aldeko ardatza komunikazio-ardatz gisa bultzatzeko kontuetan, Euskadik Europan duen posizio estrategikoa bultzatzen jarraitu dugu, “Akitania-Euskadi Plataforma Logistikoa” ekonomia intereseko Europako Taldearen lanaren bidez.Talde horrek Atlantic Logistic Forum 2008 antolatu zuen, garraioaren eta logistikaren inguruko foro profesionala, azaroaren 17an eta 18an Bilbao Exhibition Centre-n.

Gainera, Arku Atlantikoaren Batzordean parte hartu dugu, Europako beste eskualde batzuekin batera, garraio arloan politika bateratuak bultzatu asmoz. Batzorde hori Europako Itsas Periferiako Eskualdeen Konferentziako kide da. Garraio Zuzendaritza Arku Atlantikoko garraio taldearen buru da, eta taldea bultzatu eta koordinatzeko ardura dauka. Taldea urtarrilean Santiago de Compostelan elkartu zen, apirilean Bordelen, irailean Coimbran eta urtea amaitzeko ekitaldia Bilbon egin zen.Gainera, Arku Atlantikoko Batzordeko garraio taldea gai hauek landu ditu 2008an:

- Hiriko mugikortasunari buruzko liburu berdearen aurrean Arku Atlantikoko Batzordeak duen jarrera-agiria prestatu du.

*- Implantación de sistemas de calidad y medioambiente - Orden de 9 de julio de 2008.*

*- Implantación de elementos de localización y control (taxi) - Orden de 9 de julio de 2008.*

*- Conversión de vehículos para uso de energías alternativas (taxi) – Orden 9 julio de 2008.*

*- Instalación de ascensores o similares – Orden 29 julio de 2008.*

*- Construcción de carriles bici – Orden 29 julio de 2008.*

*- Fomento de transporte combinado de mercancías – Orden de 30 de septiembre de 2008.*

*b) Ordenes de tarifas de transporte público para 2008:*

*- Tarifas de transporte público urbano e interurbano de viajeros tanto regular de uso general y especial (Orden del 28 de febrero de 2008) como discrecional (Orden de 4 de febrero de 2008).*

*- Revisión de Tarifas de transporte público urbano e interurbano de viajeros regular de uso general (Orden de 22 de julio de 2008).*

*- Tarifas de transporte público interurbano en vehículos de turismo (Orden de 16 de diciembre de 2008).*

*- Revisión de Tarifas de transporte público interurbano en vehículos de turismo (Orden de de 9 julio de 2008).*

*- Tarifas del transporte por cable (Ordenes de 8 de febrero de 2008 para Solokoetxe y Begoña, Orden de 15 de enero de 2008 para La Salve y Orden de 18 de diciembre de 2008 para los ascensores de Arangoiti).*

***6.)***

*En relación a la potenciación del eje atlántico como eje de comunicaciones, se ha continuado con la labor de impulsar la posición estratégica de Euskadi en Europa mediante la actividad de la Agrupación Europea de Interés Económico “Plataforma Logística Aquitania-Euskadi”-PLAE. Dicha Agrupación ha organizado el Atlantic Logistic Forum 2008, Foro Profesional del Transporte y la Logística, que tuvo lugar el pasado 17 y 18 de noviembre en el Bilbao Exhibition Centre.*

*Asimismo se ha participado en la Comisión del Arco Atlántico, que pertenece a la Conferencia de Regiones Periférico-Marítimas (CRPM) de la Unión Europea, de cara a impulsar políticas comunes de transporte con otras regiones europeas. En este sentido la Dirección de Transportes lidera, impulsa y coordina el Grupo de Transportes del Arco Atlántico, que se ha reunido en el mes de enero en Santiago de Compostela, en abril en Burdeos, en septiembre en la ciudad de Coimbra y ha celebrado la reunión correspondiente al cierre de ejercicio en diciembre en Bilbao. Además, durante el 2008, el Grupo de Transportes de la CAA ha trabajado sobre los siguientes temas:*

*- Elaboración de documento de Posición del Grupo de Transportes de la Comisión Arco Atlántico al Libro verde de la movilidad urbana.*

- Arku Atlantikoko eskualdeetako trenbideko garraioaren bilakaera (kalitatea, Gasteiz-Paris trenbide-autobidearen proiektua).

- Europan barnako Garraio Sareko (TEN-T) lehentasunezko 3. proiektuari buruzko urteko txostenaren aurkezpena.

- TEN-Ten berrikusketan hartu du parte:

- TEN-Ten berrikusketari buruzko hasierako jarrera-agiria egin da.

- Garraio Zuzendaritza Europako Itsas Periferiako Eskualdeen Batzordean NET-Ten berrikusketa dela eta liburu berdearen aurrean jarrera erkidea prestatzeko lan-taldean sartuta dago.

- Itsas garraioko eta itsas autobideen inguruko ekimenen jarraipena (Bilbao-Zeebrugge itsas autobidearen aurkezpena eta Frantzia-Portugal lehiaketa).

- Itsas Politika Integraturako ekintza-planaren garapena.

- Garraio publikoko esperientzien aurkezpena (Gales, Gaztela eta León).

- Hirietan ibilgailu astunen joan-etorria murrizteko esperientzien aurkezpena (Bordele).

- Arku Atlantikoko garraio taldearen 2009rako ekintza-plana eta Atlantiko aldeko Programa Operazionalerako (2007-2013) lankidetza-proiektuak aurkezteko proposamenak.

Azkenik, Logistikaren eta Garraioaren Klusterraren lanarekin jarraitu dugu, hainbat arlotako erakunde eta entitateak biltzen dituen erakundearenarekin, sektorearen mesederako diren hainbat proiektu burutuz. Elkarte horrek bere gain hartu du Euskadin garraio-sistema adimendunak bultzatu, sustatu eta garatzeko ardura. Klusterraren Plan Estrategiakoa ( 2009-2012) prestatu da.

**7.)**

Sailaren helburuetako bat, jakina, garraiobideen arteko oreka bilatzea da, iraunkorragoak direnak bultzatuz, trenbideko garraioa esaterako.

Horretarako, ezinbestekoa da trenbide-zerbitzu lehiakorra eskaintzea, ibilgailu pribatuarentzat benetako alternatiba izan dadin. Eta hain zuzen ere alternatiba hori mamitzeaz ET/FV, SA arduratzen da, zeinak pertsonak trenbide, tranbia nahiz errepidez garraiatzeko zerbitzuak eskaintzen dituen eta salgaientzat trenbideko garraioa soilik.Sozietate horri emandako dirulaguntzak eskainitako zerbitzua hobetzeko balio izan du, tren-zerbitzuak maizago eta kalitate, segurtasun eta erosotasun handiagoak eskainiz trenbideko garraioa lehiakorrago egiteko.

- *Evolución del transporte ferroviario en las regiones del Arco Atlántico (calidad, proyecto de autopista ferroviaria Vitoria-Paris).*

- *Presentación del informe anual del proyecto prioritario nº 3 de la Red Transeuropea de Transportes (RTE-T).*

- *Participación en la Revisión de las RTE-T:*

*Elaboración de documento de posición inicial sobre la revisión de las RTE-T.*

*La Dirección de Transportes forma parte del grupo de trabajo creado en la CRPM al objeto de articular una posición común al Libro Verde sobre la revisión de las RTE-T.*

- *Seguimiento de iniciativas de transporte marítimo y autopistas del mar (presentación de la autopista del mar Bilbao-Zeebrugge, concurso Francia-Portugal).*

- *Desarrollo del Plan de Acción para una Política Marítima Integrada.*

- *Presentación de experiencias de transporte público (Gales, Castilla-León).*

- *Presentación de experiencias para la reducción del tráfico de vehículos pesados en las ciudades (Burdeos).*

- *Plan de acción del Grupo de Transportes del Arco Atlántico para 2009 y presentación de posibles proyectos de cooperación para el Programa Operacional del Espacio Atlántico 2007-2013.*

*Finalmente ha continuado la actividad del Cluster de la Logística y el Transporte, como entidad que aglutina a distintas instituciones y entidades de distintos ámbitos mediante la elaboración de proyectos de trabajo en beneficio del sector. Esta asociación ha asumido la función de impulso, fomento y desarrollo de los Sistemas Inteligentes de Transporte en Euskadi. Se ha elaborado el Plan Estratégico del Cluster 2009-2012.*

***7.)***

*Uno de los principales objetivos del Departamento es, sin duda, tratar de conseguir un reequilibrio de los modos de transporte, fomentando aquellos que son más sostenibles, como es el caso del ferrocarril.*

*Para ello, es necesario ofrecer un servicio ferroviario competitivo, que pueda ser realmente una alternativa válida al vehículo privado. Esta alternativa se materializa a través de la Sociedad Pública ET/FV, SA, que ofrece el servicio de transporte de personas por ferrocarril, tranvía y carretera y de mercancías por ferrocarril. La subvención otorgada a dicha sociedad ha servido para mejorar el servicio ofrecido, convirtiéndose en un modo competitivo con mejores frecuencias y una mayor calidad, seguridad y confort para los usuarios/as.*

| **KOSTU / *COSTE*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA** ***IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Langile Gastuak<br>1 - *Gastos de Personal* | 671 | 97% |
| Funtzionamendu Gastuak<br>2 - *Gastos de funcionamiento* | 709 | 50% |
| Gastu Arruntetarako Transf. eta Dirulaguntzak<br>4 - *Transf. y subv. para gastos corrientes* | 34.071 | 96% |
| Inbertsio Errealak<br>6 - *Inversiones reales* | 74 | 98% |
| Kapital Eragiketetako Transf. eta Dirulaguntzak<br>7 - *Transf. y subv. Con destino a operaciones de capital* | 38.632 | 94% |
| Finantza-Aktiboen gehikuntza<br>8 - *Aumento de activos financieros* | 600 | 95% |

| **SARRERAK / *INGRESOS*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA** ***IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Tasak, Salneurriak eta Zuzb. Publikoko B. Batzuk<br>3 - *Tasas, precios públ y otros ingresos derecho Público* | 76 | 160% |

**PROGRAMA**

5151 PORTUEN ADMINISTRAZIOA ETA ITSAS GAIAK

**ARDURADUNA**

12 GARRAIO ETA HERRI LANAK

PORTU ETA ITSAS GAIETAKO ZUZENDARIA

HELBURUA

1. INBERTSIOAK PORTU AZPIEGITURA BERRIETAN ETA LEHENDIK DAUDENEN MANTENIMENDUA.

2. ITSAS KIROLETAKO INSTALAZIOAK GARATZEA.

3. PORTUETAKO LEHORREKO ALDEA ETA UR AZALA GARBITU ETA INSTALAZIOAK ZAINTZEA.

4. ITSAS SALBAMENDUA ZIURTATZEA

5. PROFESIONALAK ETA GRADUATUAK ITSAS GAIETAN PRESTATZEA.

BETETZE MAILA

**1.)**

2008an portu-azpiegituren arloan egindako lan gehienak, itsasoan 2007ko abenduaren 10ean eta 2008ko martxoaren 11n izandako denborale itzelak eragindako kalteak konpontzeko izan ziren. Kalteak oso handiak izan ziren Bermeoko portuko babes-dikeetan eta Ondarroako portuko hainbat ekipamendutan. Konponketak, gainera, presaka egin dira, udaberrian eguraldiak utzi bezain pronto.

Esan beharra dago, egun horietan euskal kostaldeko buia ozeanografikoek inoizko olaturik handienak erregistratu zituztela, eta alde handiarekin gainera. Horren ondorioz, Kantauri osoko babes obretan baliatzen ari garen muturreko olatuen erregimenerako kalkulu-hipotesia berrikusi beharrean gertatu gara;guri dagokigunean, batez ere, Mutrikuko dikeko obran. Gauzak horrela, olatu-energiaren zentralaren zatia egin ondoren, espero baino motelxeago joan da obra.

Beste hari bati helduz, Orioko sarbidea N-634 errepidearekin lotzeko obrak egin dira, Orioko kontradikea sendotu, Zumaiako zutoin-oholen kaiko zola sendotu, Ondarroan kaiak konpondu, azpiak berritu eta hobekuntzak egin dira, Errekako tailerra erabat erreformatu da, Artibairen eskuineko aldean kai berri bat egin da, Lekeition profesionalen ontziendako pantalan berria egin dugu, eta portuak dragatzeko hainbat lan burutu.

2008an zehar hainbat proiektu estrategiko prestatu ditugu,

***PROGRAMA***

*5151 ADMINISTRACIÓN PORTUARIA Y ASUNTOS MARÍTIMOS*

***RESPONSABLE***

*12 TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS*

*DIRECTOR DE PUERTOS Y ASUNTOS MARÍTIMOS*

*OBJETIVO*

*1. INVERSIONES EN INFRAESTRUCTURA PORTUARIA Y MANTENIMIENTO DE LAS EXISTENTES.*

*2. DESARROLLO DE INSTALACIONES NÁUTICO-DEPORTIVAS.*

3. *LIMPIEZA SUPERFICIES TERRESTRES Y DE LÁMINA DE AGUA Y VIGILANCIA DE LAS INSTALACIONES PORTURIAS.*

4. *ASEGURAR EL SALVAMENTO MARÍTIMO*

5. *FORMACIÓN DE PROFESIONALES Y POSTGRADUADOS EN EL SECTOR MARÍTIMO Y FOMENTO DEL SECTOR MARÍTIMO.*

*GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***1.)***

*El ejercicio 2008 en materia de infraestructura portuaria ha venido marcado por los extraordinarios temporales de la mar que tuvieron lugar en el anterior Invierno, más concretamente el 10 de diciembre de 2007 y el 11 de marzo de 2008. Los daños han sido muy significativos en los diques de abrigo de los puertos de Bermeo y Orio y en diversos equipamientos del puerto de Ondarroa. Las correspondientes reparaciones se han realizado con carácter de emergencia, cuando el clima marítimo lo ha permitido a partir de la primavera.*

*Adicionalmente, los oleajes de esas fechas han superado sustancialmente a los registros históricos de las boyas oceanográficas existentes frente a nuestra Costa. Ello ha provocado una revisión de las hipótesis de cálculo, régimen extremal, con la que se están ejecutando obras de abrigo en todo el Cantábrico; en particular, en nuestro caso, en la obra del dique de Mutriku. Esto ha provocado que se haya avanzado a un ritmo inferior al previsto una vez ejecutada la parte relativa a la central de energía de oleaje.*

*En otro orden de cosas se han realizado obras como el nuevo enlace del acceso al puerto de Orio con la N-634, el refuerzo del contradique de Orio, el refuerzo del firme del muelle de tablestacas de Zumaia, la reparación de muelles, recalces y otras mejoras en el puerto de Ondarroa, la reforma integral del taller Erreka en Ondarroa, un nuevo muelle en la margen derecha de la ría Artibai en Ondarroa, un nuevo pantalán para embarcaciones profesionales en Lekeitio y diversas actuaciones de dragado de nuestros puertos.*

*Durante éste 2008 se han preparado diversos proyectos*

gure portuek eskaintzen duten zerbitzu-maila hobetzeko behar den inbertsio-erritmoari eusteko asmoz. Alde horretatik, honako hauek azpimarratuko genituzke: Bermeoko portuko lonja handitu, Orioko zutoin-oholen maiako arrantza-zerbitzuentzako eraikina egin, Ondarroako 1. jarduketa-eremuan maiak birmoldatu eta Plentzian San Balentin dikea sendotzeko.

**2.)**

Kontu honen inguruan azken urteetan egindako inbertsio garrantzitsuei eskerrak, aurtengoa trantsizio-urtea izan dela esan daiteke, eta batez ere, amarralekuak kudeatzeko eta instalazioak mantentzeko lanetan aritu gara. Hala ere, Beteranoen dartsena birmoldatu eta antolatzeko obrari ekin diogu, pantalan flotatzaileetan beste 200 ontzirentzako amarralekuak eskaintzeaz aparte, neurri batean hondatuta zegoen herriko inguru hori ere nabarmen oneratuko duena.

Azkenik, Orioko Udalari hainbat lursail erosi dizkiogu, herri horretako kirol-eskaintza osatze aldera.

**3.)**

Euskal Autonomia Erkidegoko lehorreko aldea eta ur-azala garbitzeari dagokionean 2008an Ondarroa, Lekeitio, Ea eta Elantxobeko portuak garbitzeko zerbitzua mantendu egin dugu, eta kontratuan aurreikusitako luzapenak izapidetu ditugu.

Garbiketa-zerbitzua eskaintzeko kontratuetako bat bukatu egin delarik, Mundaka, Bermeo, Armintza eta Plentziako portuak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko espedientean izapidetu eta gauzatu da, eta hori egiteko kontuan izan da, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko portuetara gero eta jende gehiago etortzen dela.

Gipuzkoako portuak garbitzeko kontratuari eutsi egin zaio, 18 hilabeterako luzatu baitzen, eta hortaz, 2008 urte osoan izan dugu zerbitzu hori.

Portuak zaintzeko zerbitzuari dagokionean, 2008an Donostiako portua zaintzeko zerbitzua mantendu egin dugu, aurreko urtean egin zena, ezaugarri berberekin, 24 hilabetetarako egin baitzen, eta hortaz, 2008 osoan izan dugu.

Bizkaiko portuak zaintzeko zerbitzua dela eta, berriro kontratatzeko espedientea izapidetu da; apirilean sinatu genuen 22 hilabetetarako. Joan den ekitaldian eskainitako zerbitzuekin alderatuz, oraingoan zerbitzu gehiago eskaini dira, Bermeon, esaterako, urte osoan zehar jagole bat gehiago dauka, eta uda sasoiak 3 hilabete artzen ditu orain eta uda sasoi osoan eskaini da zaintza-zerbitzua Lekeitioko portuan, eta Ondarroakoa ere indartu egin da.

**4.)**

Itsas salbamendua bermatzeko:

- Gurutze Gorriari diru-laguntza eman zaio, funtzionamendurako eta itsas salbamendurako erakunde

*estratégicos que permitirán mantener el ritmo inversor que requiere la mejora de los servicios prestados por nuestros puertos. Destacaríamos por su importancia los siguientes: Ampliación de la Lonja del puerto de Bermeo, Edificio de servicios pesqueros en el muelle de tablestacas de Orio, Remodelación de muelles en el A.I.1 de Ondarroa y el Refuerzo del dique de San Valentín en Plentzia.*

***2.)***

*En esta cuestión tras las importantes inversiones llevadas a cabo en ejercicios anteriores el presente ha sido un año de transición, centrado en las labores de gestión de amarres y en el mantenimiento de las instalaciones. No obstante se ha iniciado la obra de Ordenación y Remodelación de la dársena de Veteranos en Hondarribia, que además de habilitar unos 200 nuevos amarres a pantalán flotante, significará una sensible mejora urbana de ésta zona hasta ahora un tanto deteriorada.*

*Finalmente, se han adquirido al Ayuntamiento de Orio las parcelas necesarias para complementar la oferta del puerto deportivo de ésta localidad.*

***3.)***

*En lo referente a la limpieza de superficies terrestres y lámina de agua de los puertos de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el ejercicio 2008 se ha mantenido el servicio existente para la limpieza de los puertos de Ondarroa, Lekeitio, Ea y Elantxobe, procediéndose a la tramitación de las correspondientes prórrogas previstas en el contrato.*

*Ante la finalización de uno de los contratos existentes para la prestación de este Servicio de limpieza, se ha procedido a la tramitación y formalización de un expediente de contratación para la prestación del mismo en los puertos de Mundaka, Bermeo, Armintza y Plentzia, en el que se han tenido en cuenta las nuevas necesidades detectadas ante el aumento de afluencia de público a los puertos de la Comunidad Autónoma.*

*Se mantiene el contrato de limpieza de los puertos de Gipuzkoa, ya que se realizó la prórroga del mismo por un periodo de 18 meses, por lo que ha estado vigente durante todo el ejercicio 2008.*

*En lo relativo al servicio de vigilancia de los puertos, en el ejercicio 2008 se ha mantenido el contrato de Vigilancia del puerto de Donostia que se formalizó el pasado ejercicio con las mismas características que el anterior, y por un periodo de 24 meses, por lo que ha estado vigente durante todo el .ejercicio 2008.*

*En el caso del servicio de vigilancia de los puertos de Bizkaia, se ha tramitado un nuevo expediente de contratación que se formalizó en el mes de abril por un periodo de 22 meses. Respecto a los servicios prestados en el ejercicio anterior se han introducido ampliaciones en los mismos, por lo que Bermeo cuenta con un guarda más todos los días del año, el periodo estival se amplia a 3 meses, y durante el mismo se ha prestado el servicio de vigilancia en el puerto de Lekeitio y se ha reforzado el que se venía prestando en Ondarroa.*

***4.)***

*El salvamento marítimo se ha asegurado a través de:*

*- Una subvención a Cruz Roja para el funcionamiento y mantenimiento de las doce embarcaciones de salvamento*

horren esku utzitako hamabi ontziak mantentzeko.

- Salbamendurako bi ontzi berri erosi dira, eta egun Gurutze Gorriak erabil ditzan, haren esku uzteko izapideak egiten ari gara.

- Getariako Salbamendu Eskolan itsas salbamenduaren inguruko lau ikastaro eman zaizkie ontzi-patroiei.

- Txalupa eta salbamendu-egoitzetarako ekipo berriak eskuratu dira.

**5.)**

Itsas arloko profesional eta graduatuentzako prestakuntzarako ikastaroei dagokienean, Masterraren barruan hitzartutako ikastaro-programa garatu dugu, eta guztira 70 irakasle inguru ekarri ditugu.

Egindako guztiak kontuan, aurreko urteetan emandako ikastaroak garatu eta edizio berriak eskaintzeaz gain, aurtengoan mintegi berriak antolatu dira, besteak beste:

- Itsasoko langileak atzerriko portuetan uzteari buruzko jardunaldia.

- Itsas Zuzenbidearen gaineko analisi tekniko praktikoa.

Ikastaro/Masterrari dagokionean, esan beharra dago, ikasketa horiek bukatzen dituztenek oso erraz aurkitzen dutela lana arlo horretako enpresa eta erakundeetan.

*marítimo, cedidas en uso a dicha Institución.*

- *La adquisición de dos nuevas embarcaciones de salvamento actualmente en trámite de cesión de uso a Cruz Roja.*

- *La impartición de cuatro cursos para patrones de embarcaciones de salvamento marítimo en la Escuela de Salvamento de Getaria.*

- *La adquisición de nuevos equipos para lanchas y Bases de salvamento.*

***5.)***

*En cuanto a las actividades docentes para formación de profesionales y postgraduados en el sector marítimo se ha desarrollado el programa de cursos comprometidos en el Master, habiendo invitado alrededor de 70 profesores.*

*El conjunto de actividades ha supuesto no solo el desarrollo de contenidos e impartición de nuevas ediciones de cursos ya realizados en años anteriores, sino la impartición de nuevos seminarios, entre ellos:*

- *Jornada sobre abandono de marinos en puertos extranjeros.*

- *Análisis técnico práctico de Derecho Marítimo.*

*En cuanto al Curso/Master, señalar que los que finalizan el mismo, tiene una fácil inserción en el mercado laboral, ya que todos los que concluyen sus estudios de Postgrado se encuentran trabajando en empresas e instituciones del sector.*

| **KOSTU / *COSTE*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA** *IMPORTE* | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Langile Gastuak<br>1 - *Gastos de Personal* | 2.115 | 93% |
| Funtzionamendu Gastuak<br>2 - *Gastos de funcionamiento* | 6.709 | 86% |
| Gastu Arruntetarako Transf. eta Dirulaguntzak<br>4 - *Transf. y subv. para gastos corrientes* | 814 | 88% |
| Inbertsio Errealak<br>6 - *Inversiones reales* | 17.944 | 66% |

| **SARRERAK / *INGRESOS*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA** *IMPORTE* | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Tasak, Salneurriak eta Zuzb. Publikoko B. Batzuk<br>3 - *Tasas, precios públ y otros ingresos derecho Público* | 3.104 | 87% |
| Ondare-Sarrerak<br>5 - *Ingresos Patrimoniales* | 19 | 243% |
| Inbertsio Errealen Besterentzeak<br>6 - *Enajenación de inversiones reales* | 8.750 | --% |

**PROGRAMA**
5512 METEOROLOGIA ETA KLIMATOLOGIA

**ARDURADUNA**
12 GARRAIO ETA HERRI LANAK
METEOROLOGIA ETA KLIMATOLOGIA ZUZENDARIA

HELBURUA

1. INFORMAZIO ZERBITZU PUBLIKO KALITATEZKOA, DOANEKOA ETA AZKARRA.

2. ZAINKETA ETA IRAGARPEN SISTEMAREN HOBEKUNTZA.

3. ITSAS METEOROLOGIAKO DATU-SISTEMAREN BERRANTOLAKETA.

4. SAREA ETENGABE HOBETU ETA METEOROLOGIA ETA KLIMATOLOGIA ARLOKO I+G+b BULTZATU.

5. BARNE PRESTAKUNTZAREN HOBEKUNTZA.

6. METEOROLOGIA ETA KLIMATOLOGIAREN ARLOKO LEGE-ANTOLAMENDUA.

BETETZE MAILA

**1.)**

Telefono bidez egindako milaka kontsultari erantzun diegu; interneten 4.968.986 bisita jaso digu; ehundaka ziurtagiri bidali, 14.956 esku-hartze, programatutakoak, irratietan, eta bestelako hainbat ekitalditan ere parte hartu dugu, batzuk antolatu ere bai, hala nola, Zientziaren Astea, La Gaviota estropada, Zegama-Aizkorri mendi-lasterketa, Euskal Bizikleta, Gabonetako Umeen Parkea, 2008ko memoria, 2007ko meteorologiako urtekaria eta eskola-umeentzako bisitak Euskalmetera.

**2.)**

30 estaziotako kaptatzaileren eta komunikazioren txekeo-teknologia aldatu dugu; azken tximista-kaptatzailea jarri dugu martxan eta sistema osoa lanean dago; kostako radarren sistema ere lanean eta webgunean jarrita dago, eta ur sakonetako bi buien bidez eskuratutako informazioa ere webgunean kontsulta daiteke. Europan Ibi-ROOS (eskualdeko sistema ozeanografiko operazionalen sarea) programaren bidez hartu dugu parte.

**3.)**

Plan ozeanometeorologikoa zehazten jarraitu dugu, eta webgunean (www.euskalmet.euskadi.net) denbora errealeko eguraldiari buruzko nahiz iragarpenei buruzko informazioa (ItsasEus) sartu dugu.

**4.)**

30 estazio ordezkatu/gehitu dira, datuak kaptatzeko eta komunikatzeko teknologia aldatu beharra zegoela baliatuz. Industria Sailarekin batera Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Planaren barruan meteorologia eta

***PROGRAMA***
*5512 METEOROLOGÍA Y CLIMATOLOGÍA*

***RESPONSABLE***
*12 TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS*
*DIRECTOR DE METEOROLOGÍA Y CLIMATOLOGÍA*

*OBJETIVO*

*1. SUMINISTRO DE INFORMACIÓN DE CALIDAD; PÚBLICA, GRATUITA Y RÁPIDA.*

*2. MEJORA DEL SISTEMA DE VIGILANCIA Y PREDICCIÓN.*

*3. REORGANIZACIÓN DEL SISTEMA DE DATOS OCEANO-METEOROLÓGICOS.*

*4. MEJORA CONTINUA DE LA RED E IMPULSAR LA I+D+i EN MATERIA DE METEOROLOGÍA Y CLIMATOLOGÍA.*

*5. MEJORA DE LA FORMACIÓN INTERNA.*

*6. ORGANIZACIÓN LEGAL EN ÁREAS DE METEOROLOGÍA Y CLIMATOLOGÍA.*

*GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***1.)***

*Se han atendido miles de consultas telefónicas, 4.968.986 visitas por Internet, cientos de certificaciones, 14.956 intervenciones programadas en distintas emisoras de radio, y se ha participado y/o organizado diferentes eventos tales como la Semana de la Ciencia, regata La Gaviota, la carrera Zegama-Aizkorri, Euskal Bizikleta, PIN de Navidad, generación de la memoria del 2007, el anuario meteorológico del 2007 y visitas de diversos centros escolares a Euskalmet.*

***2.)***

*Se ha modificado la tecnología de chequeo de sensores y de comunicaciones de 30 estaciones, se han puesto en funcionamiento el último sensor de rayos y puesto en operativo el sistema de rayos, se ha puesto en operativo y en web el sistema de radares costeros y se ha puesto en web la información procedente de las dos boyas de aguas profundas. Participación europea a través del programa Ibi-ROOS (Red europea de sistemas de vigilancia océano-meteorológica).*

***3.)***

*Se ha avanzado en la definición del Plan de Océano – Meteorología incluyendo en la web (www.euskalmet.euskadi.net) tanto información en tiempo real como información predictiva (ItsasEus).*

***4.)***

*Se han sustituido/añadido 30 nuevas estaciones, aprovechando un cambio de tecnología tanto en captación de datos y comunicaciones. Se ha continuado con el Departamento de Industria el Plan Vasco de Ciencia,*

klimatologiari buruzko atala lantzen jarraitu dugu; LOREA-Euskadiko eta Akitaniako Itsasertza, Itsasoa eta Ibaiak–Itsasertzeko Ozeanografia Operazionaleko eskualde arteko sistema izeneko INTERREG europar programan parte hartu dugu, bai eta SKY-EYE INTEK-BERRI programan ere.

*Tecnología e Innovación referente a Meteorología y Climatología y se participa en la presentación del proyecto LOREA-Littoral, Ocean and Rivers of Euskadi-Aquitaine–Interregional System of Operational Littoral Oceanography (Programa Europeo INTERREG) así como colaboración en el proyecto SKYEYE (Programa INTEKBERRI).*

**5.)**

Honako hauetan hartu dugu parte: Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako ikastaroan, tximistei buruzko ikastaroan, kostako radarrei buruzkoan, Euskalmetek gainera hainbat biltzar eta bilera zientifiko-teknikotan izan da, eta zenbait erakunderekin harremanetan egon da, batez ere, Meteocat eta Meteogaliciarekin.

***5.)***

*Se ha participado en las siguientes actividades: Curso de verano de la Universidad del País Vasco, Curso de rayos, Curso de radares costeros, Asistencia del personal de Euskalmet a numerosos congresos y reuniones científico–técnicas y numerosas relaciones, especialmente con el Servei Catalán y Meteogalicia.*

**6.)**

Meteorologia eta Klimatologia Legearen aurreproiektuaren administrazioko izapideetan aurrera egin dugu, hainbat eragilerekin elkarlanean.

***6.)***

*Se ha avanzado en la tramitación administrativa del proyecto de Ley de Meteorología y Climatología con diferentes actores.*

| **KOSTU / *COSTE*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA** ***IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Langile Gastuak<br>1 - *Gastos de Personal* | 276 | 104% |
| Funtzionamendu Gastuak<br>2 - *Gastos de funcionamiento* | 2.429 | 88% |
| Inbertsio Errealak<br>6 - *Inversiones reales* | 380 | 84% |
| Kapital Eragiketetako Transf. eta Dirulaguntzak<br>7 - *Transf. y subv. Con destino a operaciones de capital* | 594 | 99% |

| **SARRERAK / *INGRESOS*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA** ***IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Tasak, Salneurriak eta Zuzb. Publikoko B. Batzuk<br>3 - *Tasas, precios públ y otros ingresos derecho Público* | 2 | --% |